



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA elkartu da, bigarren deialdian, Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 12ko 16:00etan, Administrazioak utzitako lokalean eta kide hauek bertaratu dira:

Joaquín Giménez García jauna, batzordeburua
José Antonio Nieto Antón jauna
Estefanía Ocariz Passevante andrea
Miren Ortubay Fuentes andrea
Francisco Javier Hernáez Manrique jauna idazkaria

Ezin dela etorri adierazi du honek:
Ricardo Egiguren Mendieta jauna

Lehenengo puntua: 2021-03-03ko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.
Batzordeak 2021eko martxoaren 3ko bileraren akta irakuri ondoren, onartzea erabaki du.

Bigarren puntua.- Batzorderako logoaren diseinua aurkeztea.
Logoa aurkeztu da formatu desberdinetan eta hainbat modelo, eta azaldu da logoaren sinbologia zein den eta zer mezu transmititu nahi den.
Batzordeak erabaki du horri buruzko erabakia epe laburrean hartzea.

Hirugarren puntua.- Web-orri hauetako informazioa zuzentzea:
(<https://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/-/albiste/2021/euskal-autonomia-erkidegoko-poliziaren-kontrol-eta-gardentasun-batzordea-eratu-da/>)

Eta

<https://www.euskadi.eus/euskadiko-autonomia-erkidegoko-poliziaren-kontrol-eta-gardentasun-batzordea/web01-s2segur/eu/>

Batzordeak erabaki du gaur egun agertzen den posta-kontua nahasgarria gerta daitekeela herritarrentzat; eman baitezake guztiei irekita dagoen kexa-buzoi bat dela, eta, egiatan, hori ez da Batzordearen asmoa. Hori dela eta, eskatu du web-orritik posta-kontu hori lehenbailehen kentzeko. Hori kendu arren, Batzordeari buruzko informazioa agertuko da, legezko testuetara bideratze hutsetik haragoko informazioa.

Proposatu diren aldaketak onartu dira.

Laugarren puntua.- Jaso diren jarduteko eskaerak.

Posta elektronikoaren bidez jasotako bi komunikazio hauek aztertu dira:

2-2021 [redacted] jauna (2021-03-15)

3-2021 [redacted] jauna (2021-03-24)



Eskaerak edo jakinarazpenak ez onartzea eragin dezaketen egoerak eta kide batzuek proposatutako zirriborroak aztertu ondoren, erabaki da horiei erantzutea horretarako onartu diren testuak erabiliz.

Bosgarren puntua.- Barruko funtzionamenduari buruzko kontuak.

-Erabaki da gaiei amaiera ematen dieten erabakiak eta jakinarazpenak erregistratzea eta erregistro horretan datu garrantzitsuak jasotzea, baita gai bakoitzeko fitxa bat prestatzea ere.

Administrazioak zigilu bat eta datagailu bat eman dizkigu eta erabaki da hor gera daitezela Batzordearen eskura.

Administrazioak egiteko daukana: jakinarazi digu berehala emango digula eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen diren baliabide batzuen berri:

Intraneta

Kideentzako posta-kontu bana

Ordenagailua

Sinadura digitala (korporatiboa) kideentzat

Eta lantzeko gai gehiagorik ez dagoenez, bilera amaitu da egun horretako 18:30ean.